

Harboot



Azkenean iritsi da ikasturtearen amaiera, baita egoera aztertzeko ordua ere. Aipatu beharra dago amaitu berria den ikasturte hau ez dela oso ona izan boluntario gutxi hurbildu direlako guraso elkartera. Dena den programatutako ekintza guztiak aurrera atera ahal izan dira, guraso gutxi batzuen lanari esker.

Espero dugu datorren ikasturtean guraso gehiago prest egotea edozein lan-batzordetan sartzeko. Hemendik animatzen zaituztegu!

Agurretarako ordua ere iritsi da. 6. mailako ikasleak datorren ikasturtean ez dira gure artean egongo. Espero dugu ikastolako oroimen ona gorde dezatela eta ondo bejon diezaiela daudenetan daudela ere.

Azkenik, opor onak opa dizkizuegu eta uda ona pasa dezazuela. Irailean berriz ikusiko dugu elkar.



Por fin ha llegado el final del curso y la hora de hacer balance. Este curso que termina podemos decir que no ha sido demasiado bueno, ya que hemos notado la falta de voluntarios y aunque todas las actividades que teníamos programadas se han llevado a cabo, ha sido con el esfuerzo de los pocos que seguimos en esto. Confiamos que el curso que viene haya más padres/madres dispuestos a aportar su granito de arena en cualquiera de las comisiones de trabajo. Desde aquí os animamos a ello.

También llega la hora de las despedidas, los alumnos/alumnas de sexto ya no estarán entre nosotros el curso que viene, esperemos que guarden un buen recuerdo de su paso por la Ikastola y les vaya bien allá donde vayan. Por último deseamos a todos unas felices vacaciones y que paséis un estupendo verano.

En septiembre nos volvemos a ver.

aurkibidea

sumario



AURKIBIDEA

Orrialdea

Elkarbizitza	4-5
2 urteko gelak	6-7
3 urteko gelak	8-10
4 urteko gelak.....	11-12
5 urteko gelak.....	13-15
1. Maila.....	16-18
2. Maila.....	19-21
3. Maila.....	22-24
4. Maila.....	25-27
5. Maila.....	28-32
6. Maila.....	33
Kampoko Ekintzak.....	34-39
Ikastolako Jaia.....	40
Ipuin Txapelketa.....	41
Irratia.....	42

SUMARIO

Página

Convivencia.....	4-5
Clases de 2 años.....	6-7
Clases de 3 años.....	8-10
Clases de 4 años.....	11-12
Clases de 5 años.....	13-15
1. Curso.....	16-18
2. Curso.....	19-21
3. Curso.....	22-24
4. Curso.....	25-27
5. Curso.....	28-32
6. Curso.....	33
Extraescolares.....	34-39
Fiesta de la Ikas.....	40
Concurso decuentos.....	41
Radio.....	42



ERREDAKZIO TALDEA

- Pablo
- Adolfo

Parte hartu dutenak:

- Ikastolako ikasleak
- Ikastolako gurasoak
- Ikastolako irakasleak

Portada: Itzal

Argitaratzea:
Guraso elkarteak

C/ Francisco Javier Landáburu, 9

01010 Vitoria-Gasteiz

 945172801

 945172693

www.umandi.net



GRUPO DE REDACCIÓN

- Pablo
- Adolfo

Han tomado parte:

- Alumnado de la Ikastola
- Madres y padres de la Ikastola
- Profesorado de la Ikastola

Portada: Itzal

Edita:
Asociación de Madres y Padres



IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK


IKASLE GUZTIOK ESKUBIDEA DAUKAGU:

- 1.- Hezkuntza integrala izateko eskubidea.
- 2.- Ikasle adingabeen eskubidea harrera bezala jasotzeko.
- 3.- Ikastetxeak babesteko ikasle adingabeek duten eskubidea.
- 4.- Errendimendu akademikoaren baliospen objektiboa izateko eskubidea.
- 5.- Eskola eta landibe- orientaziorako eskubidea.
- 6.- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.
- 7.- Kontzientzia-askatasunerako eskubidea (Behatokia)
- 8.- Ikastetxean biltzeko eskubidea (Behatokia)
- 9.- Adierazpen-askatasunerako eskubidea ikastetxean (Behatokia).
- 10.- Ikasleak elkartzeko duten eskubidea (Behatokia)
- 11.- Informazio erabiltzeko eskubidea.
- 12.- Aukera-berdintsunezko eskubidea.
- 13.- Gizarte babesarako eskubidea.
- 14.- Ikastetxean ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

IKASLEEN BETEBEHARRAK

- 1.- Ikasteko betebeharra.
- 2.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra.
- 3.- Bertaratzeko betebeharra.
- 4.- Bizikidetzaz errazteko betebeharra.
- 5.- Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra.
- 6.- Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.
- 7.- Instalazioak errespetatzeko betebeharra.

ELKARBIZITZA




DERECHOS DE LOS ALUMN@S

- 1.- Derecho a una educación integral.
- 2.- Derecho a la atención inmediata.
- 3.- Derecho a la protección por parte del centro.
- 4.- Derecho a la valoración objetiva del rendimiento académico.
- 5.- Derecho a la orientación escolar.
- 6.- Derecho a la integridad, identidad y dignidad personal.
- 7.- Derecho a la libertad de conciencia.
- 8.- Derecho de reunión en los centros docentes (BEHATOKIA)
- 9.- Derecho a la libertad de expresión en los centros docentes (BEHATOKIA)
- 10.- Derecho a la participación (BEHATOKIA)
- 11.- Derecho a la información.
- 12.- Derecho a la igualdad de oportunidades.
- 13.- Derecho a la protección social.
- 14.- Garantías del respeto a los derechos de los alumnos y alumnas en los centros docentes.

DEBERES DE LOS ALUMN@S

- 1.- Estudiar y esforzarse .
- 2.- Participar e intervenir en las actividades formativas con interés, realizando los trabajos personales que se le encomienden
- 3.- Asistir diariamente a clase con puntualidad, respetando los horarios de entrada y salida.
- 4.- Participar y colaborar en la mejora de la convivencia escolar
- 5.- Respetar las libertades individuales de todos los miembros de la comunidad educativa.
- 6 - Conocer y respetar las Normas de Convivencia del centro y las del aula elaboradas entre todos y todas
- 7.- Conservar y utilizar adecuadamente el equipamiento general del centro

GRUPO DE CONVIVENCIA



KAMISHIBAI

Nire gelako lagunei izugarri gustatzen zaie ipuinak entzutea. Eta Marisak, kamishibai hartuta, kontatzen dituenean adi-adi geratzen dira, ni bezala. Begira, begira argazkian nola dauden nire lagunak...





Ba nire gelan berdin gertatzen da: Itziar kamishibai kontatzen hasten denean, nire gelako lagun guztiak isil, isilik gertzen dira. Mugitu gabe! Nik ere gustuko ditut kamishibaiak, letxuga beste!



HAU POZA !

UDABERRIA HELDU DA!!!

3 URTEKOAK, MARITXUTARROK, MIKAELATARROK ETA DUN – DUNDARROK
IKASTOLATIK ATERA GARA!!!!

ARRIAGA PARKERA JOAN GARA:



PARKEAN AHATEAK IKUSI GENITUEN, ZIBURUETAN IBILI GINEN, UDABERRIAZ GOZATU GENUEN..... ETA IKASTOLAN UDABERRIARI BURUZ LAN POLITAK EGIN DITUGU.



ETA PONY-PARKERA JOAN GARA:

AUTOBUSA HARTU GENUEN ETA GELAKO LAGUNEKIN ONDO PASATZERA
PONY – PARKERA!!!

PELOTA TXIKIAK BOTA



PELOTA HANDIAK BULTZATU



TXIRRISTA HAUNDITIK



ZALDIZ IBILI...



BUELTATU NAHI DUGU!!!



Opari ederrak bakarrik
aurrezteagatik

Vital Txiki

Regalos guapos sólo
por ahorrar

Caja Vital Vital Kutxa



LASTER OPORRAK HARTUKO DITUGU. DATORREN IKASTURTEAN LEHENENGO SOLAIRU-
RA IGOKO GARA, LAU URTEKO GELETAN EGONGO GARELAKO.

BAI HANDITU GARELA!!!



ONGI ETORRI
MARITXUTARROK. NI ZUEN
MASKOTA BERRIA IZANGO
NAIZ: PINGU

3 URTE A...MARITXU



ONGI ETORRI
MIKAELATARROK.
NI ZUEN MASKOTA BERRIA
IZANGO NAIZ.

3 URTE B...MIKAELA



ONGI ETORRI
DUN-DUNDARROK! NI ZUEN
MASKOTA BERRIA IZANGO
NAIZ: ASTOTXO!



3 URTE C...DUN-DUN

SUKALDARITZA TAILERRA

Maiatzean landu dugun Unidade didaktiko barruan sukaldaritza tailerra egin dugu. Bertan bi postre goxo egin ditugu.

KATU KREMA



HARTZA KREMA



Lehenengo eta behin erosketak egin genituen. Zelako ondo pasa genuen.





Etxe txokoa sukalde bihurtu genuen. Fruta garbitu, txikitu, osagai guztiak nahastu eta apaintzera.



IMPRESIÓN DE FOTOS DIGITALES DESDE 0,06 €



IMPRESIÓN DIGITAL
GRANFORMATORE
REPRODUCCIÓN
DE PLANOS
PLOT
TEADO
SENCUADERNA
CIONES
PLASTIFICADO
SMATERIAL
DE OFICINA
YESCOLAR
CDDVDREG
ALOS FAXEN
MARCA
CION
NES
IMPRESIÓN
DEFOTOGRAFÍAS
DIGITALES...



FOTOCOPIAS

Juntas Generales, 59 (acceso por Arriaga) 01010 Vitoria-Gasteiz Tel: 945 172 687 Fax: 945 174 697 E-mail: gurpil@ctv.es

Trabajamos con mimo

HORARIO DE SERVICIO
7:45 - 20:00
RECOGIDA Y ENTREGA GRATUITA A EMPRESAS

“URA, URA, URA, U...RRA,...RRA”

Maiatzean zehar 5 urteko gelakook pizsinara joan gara. Bertan, primeran pasatu dugu. Gelaka joan gara autobusez eta Iparraldeko igerilekura heldu bezain pronto, arropa erantzi, toa-lla hartu eta gorantz, uretara!!!!



Beno, uretara ez, lehenengo mugimendu sexi batzuk bertzeko eta gorputza astintzeko. Hori bukatu, dutxa hartu eta dantza egiten uretara!!! Uretan oinak plisti-plasta mugitzen ibili gara eta txurroak eta taulekin, igeri egitera!!! atzeraka, aurreraka, albo batera, bestera, burua ur-azpian...

Ostiralero, pizsina txikia guretzak bakarrik izan da. Eta gainera, jolas librea izan dugu, nahi genuena egiteko: koltxoneten gainean oreka mantendu, txirristatik uretara bota, saltoak egin, baloiarekin jolastu... Ezin hobeto pasatu dugu!!!





Ura dela eta, ez gara soilik igerilekura joan, gelan ere urarekin jolastu egin dugu.

Eta bide batez gauzak ikasi: nolakoa den ura, non aurkitu dezakegun, zertarako erabiltzen dugun, asmakizunak, kantak... eta ESPERIMENTOAK!!!

Egin dugun lehenengo esperimentoan ikusi dugu ea zer hondoratzen den eta zer ez. Horretarako material ezberdinekin frogak egin ditugu: kortxo, egurrezko gauzak, giltzak, puxtarriak, txinxetak eta paperezko txalupekin. SORPRESA EDERRAK HARTU DITUGU!!!



Geroago beste galdera bat erantzuten saiatu gara; zer da uretan nahasten dena.? Egia da gauza asko bagenekiela, oso azkarrek garelako. Etxetik ekarritako gatza, azukrea, olio, ozipina, hondarra,uretan botatzen ibili ginen ea zer gertatzen zen ikusteko. Orain esan dezakegu "ura dela eta" JAKINTSUAK GARELA !!!!!!!!!!!!!!! ETA ZUEK????????????????





Maialen Ayuela Seco, Antón Barrena González de Langarica, Vidal Jon Careaga Arrieta, Maider Castellano Escolar, Nerea Celada Mínguez, Gaizka Cernadas Armentia, Unai Collado Caro, Christian Corrales Casas, Maider Espadas García, Sara Fernández Castillo, Iker Gómez Rodríguez, Irati Gutiérrez Armentia, Markel Hernández Fernández, Izaro Iñurrieta García, Sean MC Quaid Barañano, Paula Montón Curiel, Ibai Ortiz de Urbina Sima, Aitor Rodríguez Echaniz, Alvaro Rubio Santos, Eneko Ruiz Montoya, Asier Samaniego Recalde, Xabier Tejado Sáez, Arnate Varela Fernández de Arroyabe

Gaizka Acedo Arteaga, Endika Altube Najera, Izel Bernal Unamunzaga, Mikel Castellano Escolar, Soulaïman El Toumi, Ixone Garaigordobil Trebiño, Unai García Blazquez, Unai García Portillo, Lorena García Uribe-Etxeberria, Ander Huertos Calleja, Irati Iñiguez de Onsoño Salán, Malen Aiyun Lamarca Gongueta, Haritz Lazarraga Fernández, Ugaitz López de Sabando Marcos, Anartz Pagaldai Imaz, Ekaitz Pereda Martínez, Julene Perianes Martínez, Judith Rodríguez López, Iker Soutolongo Caro, Aitor Tejeda Gallego, Markel Uzal Montero, Marcos Valderrama Martín, Alba Zamora Sáez

Diana Bagueixe Gil, Ruben Barata Tellez, Unai Blanco Saracho, Sergio Caballero García, Ekaitz Camiñas Peña, Ibon Castro Llorente, Maria Cuellar Cabañas, Maider Fernández de Arroyabe Ortiz de Zarate, Aritz Fernández Martínez, Izaro Gómez de Segura Sánchez, Julen Hernández Moreno, Adrian Lopez Requero, Unai Martínez Alonso, Garazi Martínez de Zuazo Amurrio, Aner Martínez Otxoa de Eribe, Edgar Moledo Parrilla, Irati Moreno Garcia del Moral, Jon Ordoñana Díaz, Irati Pérez Urbistondo, Haritz Ramon Altuna, Oihan Ramos Iriondo, Naroa Robredo Calvente, Laida Ruiz López de Mendiguren

LANDAREAK



Kaixo, irakurle maite!!

Lehenengo maila A taldeko ikasleak gara, eta ikasurte amaieran landarearen inguruan ari gara jardunean. Bai!! Egun eguzkitsu horietan begi bista horrenbeste alaitzen diguten lore edo zuhaitz eder horiek!



Alde batetik, Arriaga parke ederrean jasotako loreak bil-tzeko, lorontzi ederrak egin ditugu buztinez. Gure etxee-tako bazterrak apaintzeko lo-reak nahikoa ez eta eskulan kolorez biziak egin ditugu!

Irakurketan ere buru belarri murgiltzen ari garenez orri bereizle batzuk ere egin ditugu. Lehenik eta behin kartulina neurri egokira moztu, ondoren txukun margotu eta azkenik, lehortzen utzita genituen lore politenak bertan itsatsi ditugu. Hemendik aurrera gure ipuinen irakurketan zein orritan gauden ez jakiterik ez dugu!!



Artium

1.B en



Itsasoa buru gainean geneukala zirudien, marmokak, algak, animali arraroak...

Emakume bat txukun - txukun jantzita ere ikusi genuen basamortu erdian.


Artelan hau Salvador Dalí margolariarena da.
Horrek bai direla biboteak!



Gu ere artistak gara eta gure
saiakerak egin genituen arte
lanak egiten

ELKARRIZKETA

Badakizue nor den txirrindu gainean dagoena?




MARKEL IRIZAR du izena eta Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulari oñatiarra da



Umandi ikastola bisitatzera etorri zen eta 1.C taldeko neska mutilokin irratian elkarrizketatu zen.



Zer nahiago duzue zuek, elkarrizketa entzun ala ez entzun? Entzunnnnnnnnnnnnnnn.
Ba gure ikastolako web orrian laster aurkituko duzue



ACADEMIA LORD'S
Grupos reducidos o individuales
Euskera-Inglés-Francés-Lengua
Matemáticas-Física-Química
Euskera para Oposiciones

C/ Voluntaria Entrega 10 bajo
Lakua-Arriaga 01010 Vitoria
Tlfn. 945 17 36 28

AZKEN EKINTZAK ELKARREKIN



Artium museoan hitz egiten gaude lana antolatzeko.



Ados jarri eta...TATXAN! gure errobeta aurkezten dizuegu.



Erreka Mariren antzezlanen erabili genuen hormirudia.



2.mailako sukaldariak Prudentzio Deunaren erretreta jo baino lehen



Sobroneko Ur Museoan ekintza politak egin genituen.



Urarekin jarraituz esperimentoak garatzen ikerle on bihurtu gara.Ezetx asmatzen du-zuen nor den! Ez,atzean dagoena!



ERREKA MARI

Aurten istorio polit eta triste bat irakurri genuen:
Erreka Mari.


Lamiakaten istorioa ren, hobeto esanda, arken lamiakaten
Euskal Herriko erreka garbi hategen hiri ren, haina
jendearen inbidia gatik eta
gure ibaiak eta errekek rikitzen gaitik Erreka
Mari lamiak joan ren.

Ipuin honekin antzerki bat idatzi genuen.

Denbora arko eman diegu hurrez ikasteari eta antzerki
saioak egiteari.

Orain primeran dakigu eta 1. maila, 5 urte eta 4 urteko
mailetara antzerkituko diegu.

Espero dugu ondo egitea eta haien gustokoa izatea.



Kaixo, XARBOT aldizkariko irakurleoi!

Gu 2. A taldeko lagunak gaituzue. Ikasturte honetako gure tutorea Eukene izan da. Baina, azken aste hauetan Ainara etorri zaigu Eukeneren ordeiz. Izan ere, Eukenek baja hartu du bere txikitxoia edukitzeko. Zorte on, Eukene!



Ikastolako eskaileretatik musu handi bat Eukenerentzat.



Magui
SERVICIO DE CATERING

ARNOR
ER
EUSKAL ERREKORDA
2001-2002

C/ Larrigana, 12 - Pabellón 1 • Telf: 945 25 17 66 - 945 25 18 66 • Fax: 945 25 16 44
01013 VITORIA-GASTEIZ

COLECTIVIDADES
COMEDORES BARROSA
COMEDORES ESCOLARES
HOSPITALES
COMIDAS POPULARES
TALDEAK
ENPRENTAKO JANTORRIAK
ISKOLITAKO JANTORRIAK
OSPITALIAK
OTORDU IRRIKOTIAK

Firin-jarar airea dantzan

3. mailan ingurure arloan landu dugun ar
Kenergo gaia AIREA izan da. Gaia lantzeko
ondorengo kintza hauek egiz ditugu:

1. IKERKETAK:

• Aire landareentzako beharrekou dela
egiaratu dugu.

• Diafragmaren funtzionamendua.

• Aire beroa gorantz doala eta aire hotza
beherantz frogatu dugu.

2. HORMIRUDIAK:

• Taldeak antolatu ditugu eta ikusi dugun
garrantzitsuen hormirudietan jartzeari
ekin diogu.

3. PIASTIKAN: Haire-errotak eraiki
eta lanean hasi eta gustora egon gara.

4. Laborategian, bideoak ikusiz
zalantrak argitu ditugu.

3.A



"landareek oxigenoa behar dute"

- Materiala
Bi landare
Plastiko bat
- Nola egin
Lehenengo landare bat hartu eta plastikorekin estali.
Ondoren bi ordu edo gehiago horrela utzi.
Gero landareari plastikoa kendu.
Amaitzeko bi landareak konparatu.

Ondorioak: - landarea oxigenorik gabe hiltzen da.
- landareek bizitzeko oxigenoa behar dute.



Egiptoar Gozokia

Osagaiak:

- 200g datil (Katilu bat bete)
- Kolarakodakro bat kanela
- Katilu erdi intxaur (azala kenduta)
- Ezti bero pixka bat
- Almendra xehatua (katilu bat)
- Sesamoa

Nola egin:

1. Xehatu datilak uretan, urea egin arte (irabiagailuarekin egin daiteke).
2. Nahatu oreari sesamoa, kanela eta intxaur zatia.
3. Egin bolatxoak orearekin, eta sartu ezitan.
4. Azkenik, pasatu bolatxoak almendra xehatuan.

3.C



Gaileta bat kaletik poz-pozik abesten dabil:

- Ni gaileta bat naiz! Ni gaileta bat naiz!....
- Bapatean tiro batek jotzen du eta gailetak esaten du:
- Ni donutsa naiz! Ni donutsa naiz!....

Zer dela eta zer da, urtea jaistean txerria bairu gizenago eta urtea amaitzean mikaren buztana baino argalago eta bakailao hezurra baino iharrago?

(EGUTIA)

3.C

Sugea bariiz, sugea ez naiz, sugea dut izenean. Labeko haize berdea baino ereagoa da nire halsa haserretzen naizenean.

(HERNSUGA)

level
language services

10
years

ENGLISH
&
FUN

**INTENSIVOS JULIO
A PARTIR DE 4 AÑOS
¡Pasa las mañanas....
jugando y aprendiendo!**

**PROGRAMAS EN EL EXTRANJERO
CURSO ANUAL MATRICULA ABIERTA**

www.levelenglish.net

945175809



www.levelenglish.net

945175809

www.levelenglish.net

GIZAKIAREN SEXUALITATEA ETA UGALKETA

Hiruhilabete honetan laugarren mailako ikasleok asko ikasi dugu sexualitate eta ugalketari buruz. Ikasitakoa hormairuditan jarri dugu bigarren solairuan eta hemen ere, aldizkarian, ikusteko aukera duzue



Itsas zaldi bati elkarrizketa

Kaixo! Gu 4.B-ko ikasleak gara eta itsas zaldi batekin hitz egin nahi dugu, beno, uzten badigu.



- Elkarrizketa bat egin nahi dizugu, itsas zaldi jauna.
- Glub! Glub! Glub! Gluuub!
- Guk ez dakigu hizkera **glubianoa**. Mesedez, euskeraz hitz egin ahal dugu?
- Ados, baina azkar, arrautzak errutzeaz nago eta.
- Eta zer ziren "glub, glub" horiek?
- Tripa hutsik nagoela eta jan behar dudala.
- Beno... Zure espeziean, nor gelditzen da haurdun?
- Ni, arra. Emeak sortzen ditu arrautzak eta gero sartzen dizkit nik dudana poltsa batean.
- Noizero gelditzen zara haurdun?
- Hilero gelditzen naiz. Bi asteko ernaldiak ditut.

- Zenbat kume izan ahal duzu bakoitzean?
- 500 eta 1000 inguru.
- Jaio berriak diren zalditxoak zaintzen al dituzu?
- Ez, beraiek ikasi behar dute gauzak bakarrik egiten.
- Zenbat neurtzen dute kumeek jaiotzean?
- Ez da ailegatzen 1 cm-ra, bakarrik cm erdia. Baina helduak garenean 15-20 cm-ra iritsi ahal gara.
- Eta Naturan zu zara haurdun gelditzen den arra bakarra?
- Bai, animalia bakarra gara.
- Zein da zure izen zientifikoa?
- *Hippocampus hippocampus*.
- Guk itsas zaldi gutxi ikusi dugu. Zure espeziea desagertzeko zorian dago?
- Bai, arrisku handian gaude. Jaioberriak zaintzen ez ditugunez beste arrainek jaten dituzte.



- Egia da oso fidelak eta erromantikoak zaretela?
- Bai.
- Bikotea galtzen baduzu, zer?
- Beno, kostatzen zait beste bikote bat aurkitzea.
- Nola erakartzen dituzu emeak?
- Atzeko hegala mugituz.
- Joan baino lehen...
- Laguntzen dizugu eme bat erakartzen?
- Ez, bakarrik moldatzen naiz.
- Agur, orduan!
- Glub-glub! Zera esan nahi dut... Agur!



A l@s alumn@s de 4C el libro de “Gazte” les propone que se conviertan en periodistas y redacten alguna noticia. Ell@s son periodistas y protagonistas a la vez de las siguientes noticias:

Museo marítimo de Bilbao

El día 19 de diciembre fuimos a visitar el museo marítimo de Bilbao las tres clases de 4º. Vimos bastantes exposiciones de play-móviles. Tuvimos que hacer un juego de pistas sobre cosas del mar. Fue interesante, os animamos a ir porque es para todas las edades y es precioso. Después comimos unos bocatas al lado del Guggenheim. La excursión la organizaron las profesoras y la pagaron los padres.

Los cómics en el ordenador

El 13 de marzo una profesora nos llamó para que fuéramos por grupos con ella. Ninguno sabía qué íbamos a hacer; nos llevó a una sala donde había juegos, una mesa y un ordenador. Entonces nos informó que íbamos a grabar en el ordenador nuestras voces mientras leíamos algunos cómics como: Ikasle alferrak, Punki marrazkilaria... Después cuando acabamos fuimos a una sala donde había una pantalla grande y allí vimos los cómics con nuestras voces. Además la profesora nos repartió servilletas rojas y un trozo de pastel a cada uno, porque habíamos sacado muy buena nota en un exámen.

¡¡¡Pruebas SORPRESA!!!!

El pasado día 19 y 20 de mayo vinieron unas personas de Madrid a hacernos unas pruebas. En este curso es la segunda vez que hemos hecho este tipo de pruebas, la primera vez lo hicimos tod@a l@s de 4º, y la según vez l@s de 4ª y 4C. Estos ejercicios sirven para evaluar los colegios. Había pruebas de matemáticas, ingurune, gaztelania y euskera; algunas de ellas fueron fáciles en cambio otras difíciles.

Aprendimos deportes con pelota

Un profesor, llamado Joseba, vino los días 15 y 22 de mayo. Nos enseñó a las tres clases de 4º algunos juegos con la pelota, entre ellos: pelota-mano, pala, frontenis y cesta-punta. Lo pasamos muy bien y aprendimos diferentes deportes con juegos muy divertidos. Fue una experiencia muy bonita. Ahora sabemos jugar a estos deportes.



HIRU TXERRITXOAK “Markosek egin eban” doinua 5.A

Txerrien gurasoak Juana eta Martin
Hiru anaiak gozatzen bere jolasekin
Ezkur eta sagarrak dituzte atsegin
Gustora bizi dira bere amarekin

Txerritxoak ja dira nahiko zahartxoak
Etetik joateko da txerrien asmoa
Ta agurtzeko asmoz daude gurasoak
Etetik badoaz ja hiru txerritxoak

Etxea egin dute bere modukoa
Lehenengoak etxea egin lastozkoa ta
bigarrenak berriz egin zurezkoa
Hirugarrenak egin du adreiluzkoa

Ikusi ditu hiru txerriak otsoak
Aho handia du ta hortz luzeagoak
Larrosak dira eta gazte eta gozoak
Otsoak jan nahi ditu
Hiru txerritxoak


Otso beldurgarriak
Puztu zuen tripa
Orduan etxe bota da bere irrika
Lastoa erori da nahiz ta zen polita
Egurrezko etxera joan da korrika

Otsoa hemen dago gu biok jatera
Eta bultza eginez etxea botatzera
Txerriak bildurturik bakarra aukera
Egurrezko etxetik harrizko etxera

Otsoa adreiluzko etxearen pare putz eta
putz egiten dabil lotsa gabe
Baina etxea zutik ta otsoa more
Baina hau gure hiru lagunentzat hobe

Otsoa tximinian ikusi aukera
Hortik sartu nahi zuen bai etxe barnera
Ipurdia erre du eta kagalera
Agur otso gaiztoa ta joan etxera

Otsoa kagatuta. Joan da zulora
Zulotik atera ta. Joan da basora
Hiru txerriak bizi. Dira bai gerora.
Adi adreiluzko etxean pozik ta gustora.



PATXI ETA GALTZAGORRIAK (5.B)

1/ Patxi sorte txarreko nekazaria.

Patxi nekazariak
Ditu mila traba,
Baserrian bizi da
Pobreen erara.
Beti lan egiten du
Hona eta hara
Oso zorte txarreko
Nekazaria da.

2/ Emakume batek Txan magoarengana.

Kalean zihoala
Dendara iritsita ta
han emakumeak
eman dio iritzi.
Badago hemen mago bat
Du nahiko garrantzi,
Txan magoarengana
Joan zen gure Patxi.

3/ Txanek pote gorri bat eman.

Txanek agurtu zuen
Aurpegi txarrekin
Patxi joan zen dendara
Diru gutxirekin.
Pote gorri bat eman
Galtzagorriekin
Ta Patxik nahi duena
Behar dute egin.

4/ Gomendioa

Ohar bat eman dio
Potearen truke
Langile finak dira
Hala dirudite.
Baina kontuz ibili
Esango nizuke.
Lana bukatuz gero
Suntsituko dute

9/ Patxirentzat zorte ona heldu.

Lehen txarra zen baratza	Zortea aldatu da
Teilatu eta horma,	Eta ez da broma
Patxiren baserria	Lehen zorte txarra ta
Orain da kristona.	Orain zorte ona.

5/ Lanean jartzen ditu.

Lanean jartzen ditu
Ezin egin negar,
Ia dena dago ondo
Ez dauka zoritxar.
Patxi dago ikusten
Dutela nahiko indar
Lan guztia amaitu
Zuten azkar-azkar.

6/ Egindakoa suntsitu.

Nahiz eta dena egon
Ondo atonduta,
ta Patxik esan dien
utzi margotuta,
Beraiek, dena eginda,
Daude aspertuta
Ta azkenean dena
Dago suntsituta.

7/ Patxiren ideia: zulatutako kuboak bete.

Patxi oso beldurtuta
Zer egin pentsatu
Ideia bat behar du
Eta du asmatu.
Beharko du uraren
Kuboa zulatu
Eta Galtzagorriei
Betetzeko eskatu.

8/ Galtzagorriak ohartu eta alde egin


Patxik tranpa egin die
Orain nahi dute jai,
Bonbaira joango dira
Hobeto da Hawaii.
Festa hartuko dute
Orain bizi lasai,
Lana alferrik eginez
Ez dute bizi nahi.

Mini MONKEY

The mini monkey is very small. It's got two big ears and two big eyes. The mini monkey is seven cm. It has got long feet and small legs. It has got one little nose. It's blue and pink. The eyes are small and black.

It's the only one in the world. Its body is small and blue. Its legs and its nose are pink.

It lives in the laboratory because they are studying it.



By: Nerea Burguera
5.B



HABIA - KUTXA

Kaixo, laguna gu: 5.C-ko ikasleak gara, eta habia-kutxen jardueretan egin genuena kontatuko dizuegu. Jarduerak hiru fase zituen:

1. FASEA: MUNTAKETA

Lehenengo fasean bi begirale etorri ziren eskolara: Jose eta Idurre. Teknologia gelara jaitsi ginen habia-kutxak montatzera beraiek ekarritako materialekin; mailuak, iltzeak, oholak... Habia-kutxak egin behar genituen Arriaga parkean jartzeko eta txoriak bizi ahal izateko.

2. FASEA: HABIAK JARTZEA

Jose eta Idurre gure ikastolara etorri ziren berriz. Eta 3 metroko makil batekin parkera abiatu ginen kutxak eskegitzera.

Habia-kutxen artean 20-25 pausoko distantzia bat utzi behar genuen.


3. FASEA: BEHAKETA


Idurre eta Jose etorri ziren gure klasera, berriz. Gero Arriaga parkera joan ginen. Zazpi taldeetan banatu ginen (talde bakoitza 3 pertsonakoa). Prismatikoekin 10 min egon behar genuen eta ez baziren txoriak sartzen itxaron behar genuen. Gero Idurrek kaskabeltz eta amilotz txoriaren kanta jarri zuen. Txori bat Nerea izeneko neskaren habia-kutxa batera sartu zen. Geroxeago, txori batzuen argazkiak erakutsi zizkiguten. Oso ondo pasa genuen!

NOLA EGIN HABIA-KUTXA BAT.

Lehenengo pausua, bi alboak atzeko partera itsastea da. Lau iltze alde bakoitzean jarri eta kola apur batekin ere. Ondoren egin genuen pieza sabaia iretsi genion. Lehenengo kola alboetan jartzen genuen eta gero iltzeak jarri genituen izkinetan. Hori bukatzean, sabaia jartzen genuen. Geroxeago, lehenengo partea jarri genuen. Sakakortsoz antzeko aparatu batekin sabaian zulo bat egin genuen, zuloan metalezko krisket bat sartu genuen. Askenik sabaian lau torloju jarri genituen ura ez sartzeko.

Eta habia-kutxa eginda daukazu !!!!!





SANTA MARIA KATEDRALA

2009ko maiatzaren 7an Santa Maria katedrala ikustera joan ginen 6.mailako neska-mutilak.

Heldu ginenean katedralari buruzko bideo bat ikusi genuen. Gero, kasko batzuk jarri zizkiguten eta Santa Mariara sartu ginen. Obrak zeudenez, andamioetan igo ginen. Ondoren, errondako pasabidetik joan ginen, antzinako soldaduak bezala. Azkenik, portikoa ikusi genuen.

Oso interesgarria izan zen eta **oso ondo pasatu genuen!!!!**

Maria Lopez de Subijana 6.A



Kanpoan, gelako batzuk Ken Follet idazlearen ondoan.

Manualidades



Hacemos trabajos por encargo

Se dan clases

945 20 50 20


Voluntaria Entrega, 34
Vitoria-Gasteiz (Alava)

Behin baino gehiagotan erabili dugu XARBOT aldizkaria kanpoko ekintzei buruzko hainbat informazio emateko: helburuak, parte hartzearen kopurua, begiraleak...

Gaur estatistika datu batzuk plazaratu nahi dizkizuegu. Eta ondoren, argazki batzuk!


A menudo hemos utilizado nuestra revista XARBOT para informarnos sobre las actividades extraescolares: objetivos, participación del alumnado, monitores...


Hoy os queremos hacer llegar unos cuantos datos estadísticos y luego, ¡unas fotos!



.....si nos hemos dejado alguna ya podéis perdonar.









MAILEN UNZALU
gure koordinatzailea



GURASO ENTZAKO KANPOKO EKINTZAK

Hola a todos:

Como ya sabéis algunos a parte de las extraescolares para niños hay padres que nos hemos organizado para realizar también actividades deportivas y culturales en la ikastola. Llevamos 2 años realizando Patinaje y danza / batuka. Os animamos a que el año próximo participéis.

Kaixo guztioi:

Dakizuenez, ikasleentzako eskolaz kanpoko ekintzen gain; guraso batzuek kirolezko eta kulturako aktibitateak antolatu ditugu.

Bi urte patinaia eta dantza / batuka egiten daramagu.

Datorren urtean parte hartzera anima zaituztegu.



Ikusten duzueenez, aurten ez dago ekaineko 13an ospatutako ikastolako festari buruzko ez argazkirik, ez artikulurik.

Larunbat hartan jolasak, musika, karaoke, dantzak, tortilla eta anaitasuna gozatzen genituen bitartean, gure XARBOT aldizkaria inprentan zegoen, udako oporrak hartu baino lehen, garaiz iritsi ahal izateko.

Dena den, orrialde hauetatik eskertu nahi dugu Umandi eskola komunitatearen festa ospatu ahal izateko guraso guztiok egindako lana. Eta, inor ofenditu gabe, eskertu nahi dugu, bereziki, ANTO eta LUIS erregaitzak.

Eskerrik asko hain ondo antolatzeagatik dena!



Como veis, este año no tenemos fotos, ni artículo alguno sobre la fiesta de la ikastola, celebrada el día 13 de junio.


Mientras disfrutábamos de ese sábado de juegos, música, karaoke, bailes, tortilla y hermandad, nuestra revista XARBOT estaba en la imprenta, para poder llegar a tiempo antes de las vacaciones de verano.

No obstante, queremos agradecer desde estas páginas la labor realizada por todas la madres y padres que han hecho posible, otra vez, la fiesta de la comunidad escolar de Umandi. Y, sin que nadie se ofenda, queremos agradecer en especial a los incombustibles ANTO Y LUIS.

¡Gracias por organizarlo todo tan bien!



IPUIN TXAPELKERATEN BERRIAK:



Estos son los autores y los títulos de los cuentos elegidos. Nos hubiera gustado publicarlos aquí, pero nos extenderíamos demasiado; así que podéis leerlos en la Biblioteca de la Ikastola.

Encuadernaremos todos los trabajos porque todos tienen su parte de encanto; nos hemos emocionado, reído y sorprendido con vuestros escritos y no ha sido nada fácil la labor de nuestro jurado.

Queremos agradecer la colaboración del escritor y profesor Xabier Etxaniz.

ZORIONAK DENONTZAT!

Eskerrik asko zuen parte hartzeagatik eta datorren urtean berriro!

Ipuin aukeratuak :

1.Zikloa :

- 1.Dragoi haundiaren arraultza; de Gorka B. 2. maila C.
- 2.Txapel magiko; de Alex Garcia . 1.maila B.

2.Zikloa:

- 1.Katua eta saga etsaiak; de Nerea Larrañaga . 3.maila B.
- 2.Bi hanketan ibiltzen zen txakurra; de Ane Martine. 3.maila A.

3.Zikloa:

- 1.Umandiren benetako istorioa; de María López de Subijana. 6.maila B .
- 2.Aitonaren ipuina; de Aitor Aguirre. 5.maila B.

Gurasoak eta irakasleak:

- 1.¿Por qué leer?; de Carmen Guerrero.
- 2.El secreto de la luna; de Rosa Maria Pina.
- 3.Lakuaren soinua; de Tania Mendez.

Eskerrik asko, Iñaki!

Maiatzeko 29an Iñaki Viñaspre, bertsolari gasteiztarra, gonbidatu genuen KONTU-KONTARI irratizulora etortzera, eta 6.A-ko lagunok elkarriketatu genion.



Galdera asko egin genizkion, adibidez non ikasi zuen txikitan. UMANDI ikastolan, gure ikastolan ikasi zuela esan zigun, baita ikasle ona zela ere: nota onak ateratzen zituela, matematika maite zuela, plastika ez zuela oso gogoko...



Iñaki Viñaspreri egindako elkarrizketa entzun nahi duzuenak sar zaitezte ikastolako web orrian: www.umandi.net. Porrusalda. 2009-05-28 Lehen hezkuntzako irratsaida.



NUEVO HORARIO ININTERRUMPIDO:..... NO CERRAMOS AL MEDIODIA

LUNES A VIERNES:.. 8:00 A 21:00

**SABADOS:..... 8:00 A 15:00
19:00 A 21:30**

DOMINGOS Y FESTIVOS:..10:30 A 15:00

ASAMOS POLLOS: SÁBADOS Y DOMINGOS



TELEFONO: 945 17 42 41

sar zaitzez

www.umandi.net

orrian





1. Ierroan: Tania Méndez, Naia Domínguez, Maite de Felipe, Lide Sarasola, Blanca González, Víctor Villamor.

2. Ierroan: Sara Alonso, Ane Léniz, Maitane San Vicente, María López de Subijana, Nerea Alfonso, Miren Trujillo, Ania Barrantes, Itxaso de Sosa, Ekaitz Moreno, Iker Lorenzo.

3. Ierroan: June Jorge, Paula Jiménez de Jubera, Gentza Bautista, Gaizka López de Ciordia, Oihan Larreina, Estela Pérez, Alejandro Corral, Eric Romero, Markel Checa., Xabier Puelles, Adrián Blázquez.

4. Ierroan: Imanol López, Iker Alvarez, Jon Soutolongo, Asier Romero, Xabier Pérez, Aritz Castro, Iker Mendi, Itxaso Iriondo, Mikel García, Unai López de Ondategui, Aritz Garitano, Asier Marín, Zira Soto.

5. Ierroan: Arturo Molina, Edgar Yudego, Oihane Arocena, Mirari Martínez, Aitziber Ortega, Ainara Gijón, Ane Sáez, Aritz Juan, Garbiñe Alava, Irene Soto, Irati Larrinaga, Enara Salgado.

BETIKO LAGUN!!!